

HERRI IKERKETA, HERRIAREKIN, HERRITIK I



GARBIÑE LARREA
ITURRALDE

Joan den ekainaren 22an izan genuen *Ikerketa parte-hartzailea eta kokatua: herri ikerketa, herriarekin, herritik* ikastaroa Eibarren. UEUren 54. Udako Ikastaroen barnean, Biharamunen Lantegiak antolatua. Loretxu Ber-gouignanek eskatu zidan ea parte hartuko al nuen, interesa zutela sendabelarren gaiarekin, ea herritik datorren jakintza hau nola jaso izan dudane eta nola zabaltzen dudane gaur egun.

Hausnarketa eragin zidan eta parte-hartzea ondo prestatu beharra ere bai. Mahai-ingurua egin genuen Koadro Eskolako Ulises Domech eta Sugoi Etxarri, Herri Haziak Niko Mendiburu eta Loretxurekin berarekin eta izandako solasa benetan aberatsa izan zen. Hainbatek eskatu zidaten hedatzeko han esandakoa eta horretara noa. Artikulu batzuk behar ko ditut, beraz, pazientziak har ezazue sendabelarren inguruko proposamen praktikoek zain zaudetenok.

Ikerketaren esparrua edozein dela ere norberak gaiarekiko dituen jarrerara, ikuspegia edo begirada dira lehenengo ezagutu beharrekoak. Nire kasuan abiapuntuak asko izan zuen kezka eta arduratik, etengabe entzuten bainuen "hau galtzen ari da, hau galtzera doa". Baliotsua zen zerbait salbatu beharra geneukala ere entzuten nuen baina ez zidan pozik ematen, salbatzaileak asko maite ez ditudalako agian.

Nire zalantzak nituen, leku askotan oso bizirik ikusten bainuen sendabelarren in-



JAM

Irakurri Ignacio Maria Barriolaren *La medicina popular en el País Vasco* liburua eta jabetuko zarete 1952an, frankismo betean, nola idazten duen mediku donostiar batek landa giroko jende, bere ustez, ezjakinaren eta horien praktiken inguruan. EHUren Donostiako kanpuseko ikasgelategiak darama bere izena baina berak trufaz seinalatutako en-izen-abizenak daramatzan kale eta plazarik ez dago inon, are gutxiago hiribiderik.

guruak jakintza. Orain, urte batzuetako lanaren ondoren, esango nuke ez dela galtzen ari. Nola transmititu ez dakigula, inon ondo jasota ez dagoela, hezkuntza arautuan ez duela lekurik, ez dagoela inoren agendan; hori besterik da. Are gehiago, esango nuke "hau galtzen ari da, hau galtzera doa" esaten duenak askotan ikuspegi urbanoa duela, urbanoegia, lehen sektorearekiko gertukoa ez dena. Hitz horien atzean jarrera bizi-barkatzailea ere nabaritu izan dut, tonu kontua da, baina lehen sektoreaz hitz egiterakoan jarrera harroa disimulatzea ez dute denek lortzen. Eta horiek denak ikusten ari naizen bitartean askotan pentsatzen dut norbait, une honetan bertan, Euskal Herriko lekuren batean, nik ezagutzen ez dudane sendabelar batekin ari dela zerbait baliotsua egiten.

Ez gara jakinda jaio. Bistakoa da baina esan beharra dago, hartara etxeko transmisioaz hitz egingo dugulako lehenbizi. Gutako askok naturalki bezala jasoa da, arrautza frijitzen bezala erakutsi zigutelako uken-dua egiten. Ez da beti gertatu ordea eta jaso ez denean, horretarako arrazoi asko aipa ditzakegu. Medikuntzaren ofizialtasunarekin berau egikaritzen dutenen monopolioa

etorri zen, medikuntza bat eta bakarra izatea, hortik kanpoko guztiak sasimedikutzat jota. Egin orain ahalegina, sasi aurrizkiarekin hasten den hitz goxo bat aurkitzen.

Honekin herriak berea izan zuen sendaketarako jakintzaren zapalketa hasi zen eta gehien zekitenen kontrako jazarpena ere bai. Isunak etorri ziren eta epaiketak ere bai. Askok utzi egin zioten ofizioari, ondorioei zieten beldurragatik. Neuri gertatu zitzaidan, *Milagritos* ukenduaren inguruan galdezka hasitakoan jaiki, atea itxi eta aho-tsa jaitsita hitz egiten hasi zitzaidala solaskidea, "badaezpada ere, badakizu, igual baten bati ez zaio nik hau zabaltzea gus-tatuko". Esango nuke, euskara bezala, ez dela bere kasa galdu. Bestela irakurri Ignacio Maria Barriolaren *La medicina popular en el País Vasco* liburua eta jabetuko zarete 1952an, frankismo betean, nola idazten duen mediku donostiar batek landa giroko jende, bere ustez, ezjakinaren eta horien praktiken inguruan. EHUren Donostiako kanpuseko ikasgelategiak darama bere izena baina berak trufaz seinalatutako en-izen-abizenak daramatzan kale eta plaza-rik ez dago inon, are gutxiago hiribiderik.

Jarraituko du. ●

A ZE FAUNA!

TXIMISTA BELARDIAN



IÑAKI SANZ-AZKUE
ARANZADIKO KIDEA

Suge gorputz kiribildu bat sumatzen da belar luzeen babesean. Argi-itzaletan ari da goxatzen, eguzkipean. Lasai dago; eroso, bere bizitokian. Baina amaitu da bakea. Gorputzak mugimendu txiki bat sentitu du sabel azpira itsatsia duen lur lehorrean. Pausuak nabaritu ditu. Gertu... gero eta gertuago... oso gertu. Gizakia da! Suge berdehoriak ez du arriskurik hartu nahi, ordea. Zitzu bizian mugitu da belar artean. Zast! Eta instant batean desagertu egin da. Aranzadiko ikertzailea geldu gelditu da. Mugimendu azkar bat sumatu du belar luzeen artean: tximista bat belardian.

Baionako belardi bat zen. Baina Baiona izan zen bezala, izan zitekeen Euskal Herriko iparraldeko beste guneren bat. Edo Nafarroa iparraldekoa. Suge berdehoriak (*Hierophis viridiflavus*) Euskal Herrian ikusi nahi duenak, aieka horretan egin beharko duelako bilatzeko saiakera. Izan ere, Bizkaian eta Araban ez du aurkituko; ezta Nafarroa erdi-hegoaldean ere. Eta Gipuzkoan... Gipuzkoan bada zer kontatua.

Oñatiko parajeetan 1980ko hamarkadako aipu pare bat ezagutzen badira ere, egun, suge berdehoriak Irun inguruan baino ezin da ikusi. Irunen, eta duela gutxiko behaketa solte baten arabera, baita Hondarribian ere. Izan ere, badirudi espeziea bere banaketa zabaltzeko prozesuan ari dela. Plaiaundiko paduretan gero eta ohikoagoa da, eta Irundik Oiartzunerako bidean, ikusi izan da gehiagotan. Hori jakiteko, alabaina, espeziearen jarraipena egin beharra dago. Eta jarraitzeko, ikerketa egin behar.

Aranzadi Zientzia Elkarteko Iñaki Romerok badaki zerbait horri buruz. Euskal Herrian sugeei buruz egin diren



SUGE BERDEHORIA (*Hierophis viridiflavus*)

TALDEA: Ornoduna / Narrastia.

NEURRIA: 100-108 cm.

NON BIZI DA? Belardi, baso irekiune eta hormetan.

ZER JATEN DU? Ugaztun txikiak, hegaztiak eta narrastiak.

BABES MAILA: EAEn eta Nafarroan babestua.

ikerketak oso urriak dira, baina suge berdehoriak duen interesa ikusita, Romerok saiatzea erabaki zuen. Banaketa mugatua du espezieak, eta beraz, sugeei buruzko ikerketen metodologia testatzeko interesgarria da. Hala, Aranzadiko kideak Gipuzkoako populazioaren jarraipena egin du azken urteetan, espeziearen banaketa mugan egonda, ikuspuntu askotatik interesgarria delako. Eta Europako beste hainbat populazioen laginak hartuta, ikerketa genetikoak ere egin eta publikatu ditu Romerok. Emaizak garbiak dira: Italiako populazioekin gertatzen ez den bezala, Euskal Herriko suge berdehoriaren banaketa mugan dauden populazioak eta Europakoak berdinak dira genetikoiki. Espezieak azken glaziazioen ostean konkistatu zituen Iberiar penintsulako lurrak, klima lagun izan zuenean. Egun, European banaketa zabala duen espeziea izan arren, Kataluniako, Aragoiko eta Euskal Herriko eremu batzuetan baino ezin da ikusi penintsulan.

Suge berdehoriak karraskari jalea da. Beltz eta hori kolore deigarriak ditu soinean, eta gorputza fina eta luzea du. Ugaztun txikiak ditu gustuko, baita hegaztiak eta narrastiak ere; eta horien bila ibili ohi da zelai irekietan eta basoen arteko irekiguneetan. Horma zaharrak eta bide ertzak ere gustuko ditu, eta leku egute-

sun puntu bat duten guneeetan. Baserri inguruetan eroso egoten da, sagu-jendea bertan aurkitzen baita ugari. Hala, ez da harritzekoa, azken urteetan Irungo San Martzial mendiaren inguruko baserrietatik gertu maiz agertu izana.

Pirinioetan, terma erromatarrek izan ziren lurretan ikusi daiteke eta dentsitate handiko populazioak osatu ditu. Hala, izan da, medizinar loturiko Asclepio jainkoaren omenez, erromatarrek gugana ekarritako kulturako animalia moduan askaturiko sugea dela proposatu duenik.

Jainkoak gora, jainkoak behera, suge berdehoriak ikusteko errezoak baino, pertsonaren begi azkarrak eta finak markatzen du diferentzia. Belardiko belar luzeen artean tximista ikustea ez baita edonork egin dezakeen zerbait. ●

AA EZ, AE BAI, ADIMEN BIOLOGIKOA



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Txakurrak? Noski! Behorak? Bai! Zezenak? Nola ez ba! Arbolak eta barazkiak? Nola ba, txoratu egin al zara, ala! Gogoan al duzu 2020. urte txar hartan, etxean giltzapetu gintuztenean, nola kalera ateratze-ko baimena izateko jendeak txakurra erakustea nahikoa zuen, baina baratzea zaintzera ezin zen atera?

Atari-aurreko txakur horrek, zaldi-las-terketako behorak, zezen plazako idi joal-dunak eta abarrek eskubideak dituztela barneratu dugu. Bizimodu duina dakarren zaintza egokia zer-nolakoa den ere arautu eta lege bihurtu du pandemian txakurrak gu paseatzea bidezkoa zela arautu zuen jende txakurdun hark berak. Eta jendarteratzen ari da animalismo, barazkizaletasun, bega-nismo eta abarrekin batera.

Hagintari jende horrek berak, bakarren batek izan ezik, barazki baratzerik ez du izango, baina lore baratzea seguru baietz. Jakin nahiko nuke baratze horietan zer triskantza egiten diren garbitasunaren, estetikaren eta dotoreziaren izenean. Hiru helburu horiek nola arrazoitzen diren ere ikasgai beharko luke, ez dakit psikologiara-ko edo psikiatriarako edo albaitaritzarako. Entzungo duzu maiz, xelebrekeria bikainik, serio-serio esanda: "Aldamenekoak egin du eta guk ere egin beharko dugu", "beti horre-lla egin izan da", "arbola hori handiegia da" ... Errepide ertzetara begiratu besterik ez dago. Aldundiko errepideen mantenu-rako ordenak ematen dituzten goi mailako teknikari arduradunek, hormigoitan edo betoititan ingeniariak direnek jakina, izuga-rrizko fobia diete arbolei, eta lepoa moztzen diete, kandela itxuran utziz; urteetara, be-rak egingo ez direnean, bere biloba azpian



Terrasse-Vaudreuil udalerrria Quebecoko eta Kanadako lehena izan da, 2026ko ekainaren 9an, Arbolen Eskubideen Deklarazio Unibertsala onartu duena.

harrapa dezakeen arbola ahula izango da, zauri horren eraginez. Antzeko gauzak ikusi dituzu kale, parke eta etxarteetan.

Gurea bezalako jendarte aurreratu aitzindariak landareei ematen dien tratua, egungo pertsonen esklabutza bezala gero, gure alaben alabek ezingo dute ulertu. Garai batean animaliei ematen zitzaiena gaur iruditzen zaigun bezalaxe. Txakur bat ezin duzu nola hala arbola bati lotuta utzi, baina arbola horri lepoa moztu nahi badiozu inolako arazorik ez duzu izango. Aspaldi ari naiz ingurukoak gogaitu arte, esan eta esan, gure hurrengo belaunaldiak ezagutu-ko dituela landareen eskubideak babestuko dituen legedia.

Ezingo da nolanahi landare bat moztu eta bota, atera, inausi eta abar arrazoi zo-rrotzik ez bada tarteko. Hasteko, horra iris-teko landareak nor badirela aitortu behar dugu.

Adimen Artifiziala (AA) boladan den honetan, gure adimenak beste bidezidor bati heldu behar dio. Artifizialtasun horri bazte-rreko erreka joarazi eta AB asmatu eta anto-latu behar dugu. AB bai, Adimen Biologikoa, bizidun guztiak gu adina badirela baietsi eta ederretsi behar dugu. AB behar dugu.

Urteak dira landareen memoria, adi-mena, komunikatzeko gaitasuna, eraba-kiak hartzeko ahalmena, elkarlana sortzea,

baliabideak partekatzea eta abar gero eta luzeago baten berri badugula. Adibidez, 1966an Cleve Backster CIAko poligrafoe-tan adituak frogatu zuen landareek memo-ria badutela. Esperimentu hau beste batean kontatuko dizut.

Eta bidea ireki da. Quebecoko Terrasse-Vaudreuil udalerrriak arbolak ofizialki iza-ki bizidun gisa aitortzea erabaki berri du, beren eskubide propio eta guzti. 2.000 es-kas biztanleko herri honetako zinegotziek 2026ko ekainaren 9an aho batez erabaki zuten arbolek babesa merezi dutela, "bi-zitzarako, hazkuntza naturalerako, osota-sunerako eta birsorkuntzarako eskubidea barne". Era berean, Quebecoko eta Kana-dako lehen udalerrria izan da Arbolen Es-kubideen Deklarazio Unibertsala onartu duena, nazioarteko ingurumen-talde saldo batek sustatutako ekimena. Artikulu nagu-siek diote arbolak izaki bizidunak direla eta jendeteriaren ondasun komuna direla, Lurreko bizitza haien existentziaren mende dagoela eta pertsonen "ahizpatasunez eta elkartasunez" jokatu behar dutela haiekiko.

Tokitan gaude gu hemen! Hala ere, eki-men berritzailen bila dabilzan hainbeste zinegotzi eta alkate moderno ditugun he-rri honetan ea bide honi noiz heltzen zaion. Bide horri lotzen zaion lehen herria aitzin-daria izango da, bai horixe. ●

DAONAZ

BERAKATZ BELTZAREN ONURAK



GARAZI ZABALETA

Duela hiru urte sortu zuen Pete Ezkerra Perezek berakatz edo baratxuri beltza ekoizten duen Daonaz proiektua. “Lurrereki-ko interesa aspalditik datorrit, 2004an nekazaritza ekologikoko ikastaro intentsiboa egin nuen, eta geroztik hor ari nintzen baratzea egiten eta nire gauzak lantzen”, azaldu du. Ikastaroa egin zuen garai bertsuan ezagutu zuen berakatz beltza bizkaitarrak, erdi kasualitatez, eta txundituta gelditu zen bere propietateekin. “Nire buruan gelditu zen berakatz beltzaren kontua, denborarekin ikertzen hasi nintzen, eta duela hiru urte laborategi sinbiotikoa muntatzeko aukera sortu zitzaizkidan pausoa eman nuen”, azaldu du.

“MAILLARD” ERREAKZIOA

Betiko berakatz zuria dago berakatz beltzaren jatorrian, eta jasaten duen eraldaketa prozesuari askotan “fermentazio” deitzen bazaio ere, benetan “Maillard erreakzioaren” bidez eskuratzen da berakatz beltza. “Hartzidura kamera batean sartzen da, kamera horretan tenperatura beroa eta hezetasun handia daude, eta tamainaren eta barietatearen arabera, 20 eta 40 egun artean utzi behar da hor”, azaldu du ekoizleak. Azukreek aminoazidoekin erreakzionatzen dute berotze prozesu horretan, berakatzari zapore, usain eta kolore berria emanez. “Pixkanaka belzten da berakatz, eta testura koipetsua hartzen du”.

Berakatzak berez propietate onak ba-



ditu, berakatz beltzak propietate horiek biderkatuta dituela azaldu du ekoizleak, eta gorputzari energia emateko, odoleko parametroak erregulatzeko eta osasunerako onuragarria dela. “Berakatz baltza egiten hasi nintzenetik jendea datorrit esanez ez dakiela zer den, baina oso gustura dagoela, indar handiagoa eta burua argiago sumatzen dituela”, gaineratu du. Gizaburuagan (Bizkaia) dauka Ezkerrak eraldaketa guinea, eta bertan egiten ditu ekoizpenak. Berakatz beltza bere horretan egiten du, baina baita lehortuta hauts bihurtu ere. “Zuri-beltz deitzen diogun hautsa ere egiten dut, berakatz zuri eta beltza lehortuta, eta Beragatz deitu diogun produktua ere bai, berakatz beltza eta Nafarroako Jaizko gatza nahasita”, dio.

BERAKATZ EKOLOGIKOA

Proiektu berria da Daonaz. Orain arte Kordobako (Espainiako Estatua) ekoizle ekologiko bati erosi dio berakatz Ezkerrak, eta eraldaketaz soilik arduratu da bera. Baina, azken urteetan negutegiak ere jarri ditu ekoizpenari ekiteko. “Negutegi horretan probak egiten ari naiz, baina momentuz ez da erraza izaten ari berakatz beltza egiteko tamaina eta kalitate egokiko produktua lortzea”.



Bestetik, Faltzesko (Nafarroa) berakatz ekoizle batekin ere harremanetan dago bizkaitarra, bere produktuarekin lanean hasteko probak egiten.

Azoketan, kontsumitzaileen kooperatibetan, ekodendetan eta antzeko denda txikietan du salgai produktua. “Ekoizpen eta kontsumo ekologikoaren zirkuituak bultzatzea da nire asmoa, filosofia horrekin ari naiz lanean, eta batik bat horrelako espazioetan mugitzen dut produktua”, amaitu du. ●